



OTEIZAREN ONDAREARI BEGIRADA

Jorge Oteiza artistak Tolosarentzat eginiko artelanak gertutik ezagutzeko aukera »6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-03-24

VII. URTEA 1.661. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo aurkeztu zuten Euskaraenea, ekimenaren antolatzaila diren talde eragileetako ordezkariak; gaur ekingo diote egitarauari. ESTI EZEIZA

EUSKARAREN ALDEKO INDAR GUZTIAK BEHARREZKOAK DIRELAKO

TOLOSA Euskaraenea izeneko ekimena martxan jarri dute herriko elkarte eta eragile ugariak; «Tolosan euskarazko kultur adierazpenak bideratzea» dute helburu, elkarlanean, 12 egunez 2

Aizkardi mendi elkartearen 41. ibilaldia izango da igandean

VILLABONA Mendizaleek ibilaldi luzea edo motza izango dute aukeran 4

Bertsolar HITZA desafioaren hirugarren jardunaldian, Altzo eta Alegia

TOLOSALDEA 21:00etan Alegiako Gaztetxean ariko dira; finala, apirilaren 4an 7

To.pic-en maskota berria aukeratu dute bozketa bidez

TOLOSA Azkoitiko Urtzi Odriozolarena da 5

Saizar eta Rojo anaiak fin **Espainiako Txapelketan** 5

LIBURUA SALGAI

Salmenta:


Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140€
-----------------	-------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan.
- Ibarako Lurdes liburudendan.
- Villabonako Basajaun liburudendan.



Hiriko hainbat eragilek indarrak batu dituzte Euskaraenea antolatzeke



Atzo goizean, Kultur Etxean aurkeztu zuten Euskaraenea, ekimenaren antolatzaile diren talde eragileetako ordezkariak. E. EZEIZA

Kultura » Gaurtik apirilaren 4ra bitarte ekitaldi ugari izango dira; talde ugari bat egin dute ekimen multzo hau prestatzeko.

ERREDAKZIOA

Duela urte batzuk Jon Sarasuak bertso batzuekin egiten zuen bezala, Tolosako hainbat elkarte eta eragilek Euskaraenara gonbidatzen dute. Hau da datozen egunetarako antolatutako ekimen multzoari jarritako izena.

Izenetik hasita, hainbat berrikuntzekin dator Euskaraenea. Sarasuak honelazioen bere bertsoan. «... euskaraenara gonbidatu zaite...». Hala, Euskaraeneko antolatzaileek diote: «gonbidatu zaitez antolatu ditugun kultur ekimen hauek, euskarazko produktu oso duinen etxera, zureru, gurera, guztionera, denon artean ederrago, erakargarriagoa izango baita Euskaraenea».

Aipatu beharreko beste berrikuntza, antolatzaile kopuruarena da. Aurreko urteetan ez bezala, hiriko hainbat taldek bat egin dute

» EUSKARAENEA

Martxoak 24, asteartea

■ **'Eta zer?' antzerkia.** 09:00etan eta 11:00etan ikusgai izango da Leidor aretoan. Ikusizun honek desberdin izateko dugun eskubidea aldarrikatzen du. Emanaldia Tolosako ikastetxeetako ikasleei zuzenduta dago.

Martxoak 25, asteazkena

■ **'Eta zer?' antzerkia.** 09:00etan eta 11:00etan ikusgai. Ikusizun honek desberdin izateko dugun eskubidea aldarrikatzen du.
■ **'Bidaia intimoak' dokumentala.** 19:30ean, Kultur Etxean, Jon Maiaren zuzendaritzapean egindako lana izango da ikusgai.

Martxoak 26, osteguna

■ **'Artikoko ipuina' filma.** 09:45ean, Leidorren izango da ikusgai.

ekimenarekin, eta «denen indarrak batu», egitarau oparo eta antza prestatzea lortu dute. Aurten goan honakoak dira parte-hartzaileak: Aitzol Udala Euskaltegia, Bertsozale elkarteak, Galtzaundi

Martxoak 28, larunbata

■ **Tolosakantari.** Hilabetero egiten duten bezala, 12:00etan aterako dira Tontokaletik.

■ **Bertsojazz.** 22:00etan izango da ekitaldia, Leidor antzokian. Inprobisazioaren bi atal garrantzitsu elkarrekin ariko dira bertan, elkarlanean. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Jon Maia ariko dira bertsoan. Bixente Martinez, Haritz Oleaga, Asier Iltuarte, Jon Piris eta Julen Izarra musikariek ere parte hartuko dute. Unai Elizasu ariko da berriz, gaiak jartzen.

Martxoak 30, astelehena

■ **'Euskaldun erdaldunaren metamorfosia' hitzaldia.** Aitzol Udala Euskaltegian izango da jardunaldia 10:00etatik aurrera. Xabi Paia bertsolaria izango da hizlari.

Euskara taldea, Hirukide ikastetxea, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria, 28 kanala telebista, Inmakulada ikastetxea, Korrika Batzordea, Laskorain ikastola, Lizardi kultur elkarteak,

Apirilak 2, osteguna

■ **Korrika.** 11:15etik 12:15era bitartean Korrika igaroko da.

Apirilak 3, ostirala

■ **Benito Lertxundiren kantaldia.** 20:30etik aurrera izango da emanaldia Leidor antzokian.

Apirilak 4, larunbata

■ **Dantzari Txiki Eguna.** Dantzariak kalez kale dantzan ariko dira eguerdi aldera. Arratsaldean, Plaza Berrian, emanaldia izango da. 20:00etan helduak Plaza Zaharretik irtengo dira kalez kale dantzan aritzeko. Ondoren afora izango da Zerkausion, dantzan eta kantuan jarraitzeko. Otxabi elkar-tea lagun dutela. Afarirako txartelak salgai daude Tolosako Ikatza, Orbela; Raku eta Denak tabernetan, 16 euroren truke.

Orixe institutua, Samaniego herri eskola, Tolosa Kantari, Txolarre irratia, Udaberri dantzari taldea eta Tolosako Udaleko Euskara eta Kultura batzordea.

Talde hauek guztiek, orain arte,

banaka, beraien aldetik antolatutako euskararekin lotutako kultur ekitaldiak. Baina aurten, sinergia sortzeko asmoz, askoren artean bideratutako ekimenek indar eta bultzada handiagoa izango dutelakoan, elkartzea erabaki dute. Aurten helburua argi dute antolatzaileek, eta honako hau da: Euskarazko kultur adierazpenak bideratzea Tolosan, elkarlanean, hamabi egunetan. Honetaz gain, hurrengo urteetan, hizkuntza normalizazioari eta euskarazko kulturari bultzada eman nahi diote.

Hamabi egunetan, euskara protagonista

Lehendabiziko ekitaldiak gaur bertan izango dira. Honenbestez, Leidor antzokian ikusgai izango da *'Eta zer?'* antzezlan. Urtarilean estreinatu zen lan honek Elkarlanean argitatearen *'Eta zer?'* saila osatzen duten ipuinak ditu oinarri. Ipuin horietako laurekin istorio bakar bat osatu du Dar Dar taldeak. Saio hau Tolosako ikastetxeetako 6-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago eta eskola orduetan izango da.

Hurrengo egunetan ere hainbat ekintza izango dira adin desberdinetako tolosarrentzat. Aipatzekoa da, larunbat honetan, Leidorren aurkeztuko duten Bertso Jazza izeneko ikuskizuna. Donostiako Jazzaldian egindako saio oso arrakastatsubatean du abiapuntua ekimenak. Izan zuen harrera honaz ohartuta, Euskal Herriko Bertsozale elkarteak, ikuskizuna beste hainbat hiri eta txokoetara zabaltzea erabaki zuen. Hala, lehen emanaldia Iruñean eskaini ostean, Tolosara etorriko dira. Bertsolari eta musikari ezagunek hartzen dute parte emanaldian, inprobisazioa delarik saioaren ardatz.

Euskaraeneko egitarauaren baitan, aurreko urteetan egiten ziren emanaldiak eta berriak batu nahi izan dituzte. Honenbestez, Bertso Jazza berrikuntza horietako bat bada, Dantzari Txiki eguna, jadanik finkatuta dagoen ekitaldi bat da. Udaberri dantza taldeak sortu zuen egitasmo hau, eta bertan, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako dantzari taldeek hartzen dute parte. Egun horretan bertan erromeria eta afora egiten da gauean, Zerkausion. Afaltzera joan nahi duenak Ikatza, Orbela, Denak eta Raku tabernetan orosi ditzake txartelak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Emaitza ezin hobekak iraupen eskian eskualdeko kirolariek

Iraupen eskia » Rojo anaiek eta Xabier Saizarrek hainbat domina lortu dituzte Espainiako Txapelketan.

ERREDAKZIOA

Herrialde Katalanetako Puigcerdan Iraupen Eskiko Espainiako Txapelketak jokatu zituzten pasa den astean, eta emaitza oso onak lortu zituzten Tolosako kirolariek. Ioseba Rojok, senior kategorian, urrezko eta zilarrezko domina bana eta brontzezko 3 domina lortu zituen; Imanol Rojok, junior mailan, urrezko 3 domina eta zilarrezko bi lortu zituen; eta Xabier Saizar kadeteak urrezko eta brontzezko domina bana lortu zituen.

Estilo librean, mutiletan, 10 kilometroko proban, Ioseba Rojo hirugarren geratu zen, 29:52ko denborarekin, laugarren izan zen Imanol Rojo 30:41rekin, eta bederatzigarren Xabier Saizar 32:24ko denborarekin. Azken hau, lehenengo juniorra izan zen. Banakako esprintean, estilo librean, Imanol Rojo bigarren sailkatu zen, eta Ioseba Rojo, berriz, hirugarren.

Bestalde, Team sprint laisterketan ere lehiatu ziren, klasiko eran,



Herrialde Katalanetan izan da Espainiako Iraupen Eski Txapelketa. HITZA

hau da, bi lasterkerik osaturiko taldeak 1.200 metro bakoitzean txandakatu eta bakoitzak 3 errelebo eginez. Lasterketa bizia eta estua izan zen, eta Rojo anaiek bigarren postuan sailkatu ziren, Diego Ruiz egungo fondista hoberearen atzetik eta Gutierrez (J.J. eta Javier) anaiei aurretik. Kasu honeetan, Rojotarren estrategia, nahiz eta klasiko eran izan skating eskiekin atera eta denbora guztian enpua egitea izan zen. Hala, sailkapenekoan «ondo» baina finalean, elurra motela zegoen eta agian «bete» egin ziren.

Poursuit proban, laisterkari bakoitzak klasiko eran, 7,5 kilometro egin eta, eskiak aldatu ondoren,

beste 7,5 kilometro estilo librean egin behar zituen. 2,5 kilometroko bi zirkuito prestatu zituzten. Hemen, Joseba Rojo hirugarren izan zen, Imanol Rojo lehenengo juniorra, eta Xabier Saizar hirugarren kadetea. Azken proba errelebo mixtoak, estilo librean izan zen. Hemen, Rojo anaiek eta Irungo Maialen Lopezek osaturiko Euskadi taldea izan zen denbora onena egin zuena, 57:01.

Elur denboraldiari era bikainean eman diote amaiera, beraz. Gainera, nazioarte mailako txapelketa askotan lehiatu dira, Europako Kopa, Junior eta Sub 23 mailako mundialak, Chinan Unibersia eta Polonian FOJE, esaterako.

Eskualdeko ordezkariak zabala Espainiako Txapelketan

ERREDAKZIOA

Jokatu berri den Euskal Herriko Igeriketa Txapelketan aritu ostean, Tolosaldea Igeriketa Taldeko Iñaki Karrera, Josu Karrera, Eneka Muñagorri, Pablo Uzquodun, Jokin Otaegi, Marta Alonso, Ane Manso, Maria Manso, Olaia Cuadrado, Jon Azpiazu, Amaia Pagola, Iñigo Prada, David Rodriguez, Aitor Lekuona eta Ekaitz Privado Espainiako Txapelketan lehiatzeko prest aurkitzen dira.

Euskal Herrikoan, Privadok Espainiako gutxienekoa egin zuen, eta Muñagorri gertu ibili zen; Onsalok eta Ibarriak marka hobetu zituen, eta Vazquezek gutxiagatikez zuen lortu. Nestor Etxartek bere denbora onena egin zuen 400 librean eta 200 librean maila ona erakutsi zuen, iazko denbora 4 segundoa jeitsiz. Endika Arandiak, berriz, 100 bizkarrean aurtengo denbora onena egitea lortu zuen, eta nahiz eta bere unerik onenean ez egon, «errekuperatuko dela eta ohiko Endika» ikusiko dutelakoan daude igeriketa taldekoak.

Jarrillerosen aurka galdu du Laskorainek

Areto futbola » 3-4 galdu zuten etxean horitxoek, azken unean sartutako golei esker, gazteen taldeak irabazi egin zuen.

ERREDAKZIOA

Liderraren eta Nogalesen aurkako neurketetan bi garaipen erdietsi eta gero, Laskorainek Portugaletako Jarrillerosen bisita jaso zuen asteburuan. «Etxekoan lasitasunak» azkenean porrotera eramane zuten, hain zuzen ere, 3-4 galdu zuten horitxoek, azken unean sartutako gol bati esker.

Jarrilleros taldekoak hiru baja-rekin agertu ziren Usabal kiroldegira, eta ondorioz, partidaren lehen hemeretzi minutuetan lasaitasuna izan zen nagusi bi taldeen eskutik. Hala, jaun eta jabe ziren horitxoek bi jokaldi «bikainetan» bi gol sartu zituzten —bata Amatriainen Ekhiaren jokaldia baliatuz, eta bestea «sasoi bikainean den» Murgik Landerren pase «zorraragariari» amaiera emanaz—, eta hongoa Laskoraingoengan lasaitasuna areagotu zuen.

Izan ere, «garaipena errazegi antzeman zen, defentsako lana zertxobait urritu zuten», eta ondorioz, atsedendiaren aurretik eta ondoren bizkaitarrek bi gol sartu zituztela. «Errebotez eta zorte handiarekin» sartu zuten lehenengo izan zen, hain zuzen ere, partidaren erditik aldatu zuena, «etxekoan garaipena zalantzan egon zitekeela ohartarazi baitzuten bi taldeak».

Binakoarekin partida aldatu zen, askoz orekatuago bilakatu zelarrik, eta ikastolakoek izan bazuten ere baloia eta joko ekimena, Jarrillerosekoek ez zioten borrokari muzin egin eta baloi luzean bitartez ederki baliatu zituzten beraien aukerak. Dena den, Laskorainek Amatriainen eskutik 3-2koa egin zuen. «Uste baino gehiago sufrirta baina azkenean garaipenak ziurra zirudien». Bizkaitarrek, ordea, atezain jokalaria taktika erabili, hiruna berdindu zuten, eta azken unean laugarrena ere sartu zuten.

Bestalde, gazteen taldeak bigarren sailkatuari 5-1 irabazi zion eta igoera play-offetik gertuago kokatu dira, albiste ona, beraz.

Laburrak

Tolosa Kantarirako entsegua, bihar

TOLOSA » Euskaraenea ekimenaren baitan, Tolosa Kantari izango da larunbatean, ohiko moduan, 12:00etatik aurrera, Tontokaletik abiatuta. Hori dela eta, bihar, Kultur Etxean entsegua egingo dute, 20:00etatik aurrera. Bertan larunbatean kantatuko dituzten abestiak abestuko dituzte, eta kantu sorta ere banatuko dute. Euskara-enearen baitakoa denez, euskara-aren aldeko kantu gehiago izango direla larunbatean azaldu dute.

Ohiko bilkura izango da bihar, 19:00etatik aurrera

ANOETA » Bihar egingo dute Ohiko Bilkura Anoetako udaletxean. Hau 19:00etatik aurrera izango da. Ohiko bilkuran bi gai eztabaidatuko dituztela jakinarazi dute, Anoetako Udal Kiroldegia osoko kudeaketaren onespina lehenik, eta ondoren, Loatzo Musika Eskolako Estatutuen aldaketaren onespina, hain zuzen ere. Ohiko moduan bilkura irekia izango da eta herritar orok izango du bertan egoteko aukera.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Santio Zaharra

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobiatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Urdaira Tel.: 943 372 691 Aginaga-Usturbi
Urdaira baserria

Otatza Tel.: 943 801 757 Zerain
Otatza baserria

Urbartarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta
Iturrioz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria www.rzabala.com

Aburuza Tel.: 943 692 452 Aduna
Goiburu auzoa, Olatza etxea

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebailara auzoa

Zalbide Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa
Zalbide baserria

Eguzkitza Tel.: 660 654 317 Tolosa
Usabal auzoa, 25

Erreka Tel.: 948 510 625 Leitza
Erreka auzoa

DIEZ Autobusak

Autobusak eta errepideko autobusiak
Ereñozu, Usabal, Olatza, Ikaztegieta, ...
Mundak kalea, 24 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DONOSTIA
Pasaiekin: 943 27 11 27 / 20013 DONOSTIA

Villabona » Ibilaldi motza edo luzea izango dira igandean; Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria da.

NOELIA LATABURU


Datorren iganderako Villabonako Aizkardi mendi elkarteak bere 41. ibilaldia antolatatu du. Partaideei 8. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria izango zaie ibilaldi hau. Antolatzailerak jendetza espero dute eta dagoeneko 564 lagunek eman dute izena.

Ospea hartu du mendi ibilaldiak eta kanpotik ere jendea gerturatu da. Iaz inoiz izandako partaidetzarik altuena izan zuten: «XIV Orduen urtea zen eta jendeak prestaketa moduan egin zuengure ibilaldia, baina aurtengo partehartzea ere handia izango da, gustura gaude», zehaztu du Maddi Bengoetxea elkarteak kideak.

Iaz oso eguraldi txarra izan zen. «Aurreikuspenen arabera aurten ez du hain txarra egingo; ea zortea dugun». Hala ere, «aurtengo bidean ez da hainbeste lokatz egingo, bideak eginda daudelako», zehaztu du Bengoetxeak, iazkoa gogora ekarrita.

Lau zirkuito finkatu ditu Aizkardi bere ibilaldietarako eta errotazio moduan urtero bat egiten dute. «Hala ere, urtero aldaketaren bat barneratzen» saiatzen dira. Aurtengoan, besteak beste,

«Gure mendiez gozatzeko» aukera paregabea Aizkardiaren 41. ibilaldian



AIZKARDI IBILALDIA

Andatza, Onddi, Manttala, Adarra eta Etenetatik igaroko dira ibilbide luzea aukeratzeko dutenek.

Ibilbide motza ere «gero eta jende gehiago» aukeratzeko duela dio Bengoetxeak. Batetik, «handia egiteko entrenatuta ez dagoen jendea» dago eta, bestetik, «eguerdirako amaitu nahi dutenak». Duela

hiri urte barneratu zuten aukera hau eta, beraz, aurten lehen aldiz egingo dute ibilaldi motza; lan handia egin dute elkarteok hain osatzeko. «Polita izango da, Zizurkil inguruan dagoen burdindegiko zahar batetik Oriora zihoan bidea berreskuratu dugu, huragarbitzen aritu gara».

Ibilaldiaren hainbat artikulua

Aizkardi elkarteak hainbat puntu zehaztu ditu, parte-hartzaileek informazio zabalago izan dezaten.

Kanpotarrentzat, esaterako, elkarteak lokal bat prestatuko du koltxonetekin, bezperan bertan lo egin nahi dutenentzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek izena ematean jakinarazi behar dute. Zeharkaldia bukatzean, parte-hartzaileek udal-dutxak erabili ahal izango dituzte, Olaederran.

Ibilbide luzean parte hartzeko 14 urte beteak izatea derrigorrezkoa da. Mendizaleek derrigorrezko beharko dute ezarritako kontrolatik. Bertan, martxa-txartela erakutsi beharko dute.

Ibilbidea egiten duten partehartzaileei, martxa gehienez 11 ordu (ibilaldi luzea) eta 6 ordu (ibilaldi motza) orduren buruan egin duela ziurtatzen duen martxa-txartela erakutsiz gero, diploma banatuko diete helmugan, Villabonan.

Elikagaia, norberaren esku

Jarduera hau egiteko beharrezko diren elikagai eta edariak ekartzea gomendatzen diete Aizkardiok parte-hartzaileei. Antolaketako kideek ura eta gutxieneko hornidura jarriko dute Juanasoro, Santa Barbara, Pardiola eta Lapurtxulo kontrolatan.

Adi ordu aldaketarekin

Antolatzailerak ezarritako irteera orduak egutegiko berrikoak izango dira, hau da, ordu aldaketa aplikatuta egongo da dagoeneko. Izan ere, larunbatetik igandera bitarteko gau horretan 02:00etan 03:00ak izango dira.

Aizkardiok argi dituzte helburuak: «Mendizaletasuna bultzatzea eta Villabona inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura errespetatuz», diote. «Mendian gozatzea eta ez nekatzatxartela erakutsiz gero, diploma banatuko diete helmugan, Villabonan».

» AIZKARDI IBILALDIA: HAINBAT DATU

■ **Izen-ematea.** Doan, martxoaren 27ra arte edo egunean bertan. 649 717182, www.aizkardi.com 20:00etatik 22:00etara.

■ **Beharrezko datuak.** Federazio-ko lizentzia zenbakia, EHNA edo NAN; izena eta bi abizen; ibilaldi luzea edo motza adierazi; Federatuta bai edo ez; Mendiko taldearen izena.

Ibilaldiak

■ Luzea.

Villabona (61m) - Basopeta (300m) - Eskatzu (512m) - Andatza (560m) - Juanasoro (330m) - Oriola-Lasarte (25m) - Gurutzeta (165m) - Santa Barbara (239m) - Hernani (45m) - Pardiola (160m) - Onddi (540m) - Manttala

(600m) - Adarra (814m) - Eteneta (710m) - Lapurtxulo (590m) - Leizaran ibaia (70m) - Mandabiata (250m) - Villabona (61m).

- Luzera: 46 kilometro.
- Desnibela: 2.500 metro.
- Iraupena: 10 ordu (ggb).
- Irteera ordua: 06:30ean.

■ Motza.

Villabona (61m) - Lepasoro (105m) - Eskatzu (512m) - Andatza (560m) - Juanasoro (330m) - Atxulondo (165m) - Erdoizta Baxoa (370m) - Belkoain (489m) - Basopeta (300m) - Villabona (61m).

- Luzera: 22 kilometro.
- Desnibela: 1.100 metro.
- Iraupena: 5 ordu (ggb).
- Irteera ordua: 08:00etan.



martxoaren
26an

denok
Tuterara

www.korrika.org

aek

Tutera-Gasteiz 09
martxoaren 26tik
apirilaren 5era

korrika
badator!

Laburrak

Txapin Festako egitaraua zehazteko bilera, gaur

TOLOSA » Aurrerago zehaztuko duten maiatzeko asteburu baten baitan, Txapin Festa antolatuko dute, Tolosan. Hau zehazten joateko gaur bilera egingo dute herriko gazteek. Hau 19:30ean hasiko da, Tolosako Kultur Etxean, hain zuzen ere. Festaren egitaraua osatu ahal izateko garrantzitsua da jendea bertaratzea.

Sagardotegira irteerarako izen-ematea bihar arte da

ALBIZTUR » Datorren igandean Adunako Aburuza sagardotegira irteera antolatu du Albizturko Udalak. 20:00ak aldera plazatik abiatuko dira autobusez. 00:00ak inguruan berriro bila joango da autobusua. Hau, lehenik Hernanira joango da, nahi duena han uzteko, eta ondoren Albizturrera itzuliko da. 04:30a inguruan berriro autobusa irtengo da Hernanitik, han gelditu direnak herrira hurbiltzeko. Prezioa 33 eurokoa da. Izena biharko eguna baino lehen honako telefonoetara deituz eman behar da: 943 65 44 26 eta 665 74 63 23. 18 urteko beharokoei gurasoen baimena beharko dute.

Bihar Korrika 16ren baitan, film laburrak

ADUNA » Adunan korrika 16ren aldeko ekitaldiak prestatu dituzte. Horien artean larunbateko bertso afaria dago. Txartelak salgai daude, baina bihar izango da hauek erosteko azken aukera. 20:30ean hasiko da afaria, Txulobi elkartearen. Uztartza aterpetxean lor daitezke txartelak 20 euroan. Jokin Uranga eta Anjel Mari Peñagarikano dira bertsoetan ariko direnak.

Ohiko bilkura izango da etzi, udaletxean

AMEZKETA » Etzi 20:30ean hasita, Amezketa udaletxean ohiko bilkura egingo dute. Bertan, besteak beste, otsailaren 26an eginiko Ohiko Akta agiriaren onarpenaz gain, herriguneko ur sarea eta zoladura berriarren obraren esleipenaz ariko dira. Batzordeen informazioa emango dute bukatzeko.

DBH 4 ondoren dauden aukerei buruzko bilera

TOLOSA » Bihar Hirukide-Eskolapio-etako Aretu nagusian gurasoentzako bilera izango da 18:30ean. Bertan, DBH 4ko ikasleek bukatu ondoren dauzkaten aukerak eta etapa horretarako Hirukidek duen eskaintzaren azalpena egingo dute: horren baitan Batxilergo teknologikoa eta eleanitza sartzen dira. Beraz, Hirukideko ikasleek gurasoek ez ezik, Tolosaldeko gainontzeko gurasoek ere zabalik dituzte eskolako atek nahi adina informazio jasotzeko.

To.pic-ek badu maskota berria

Tolosa » Azkoitiko Xabier Munibe ikastetxeko Urtzi Odriozolak egindako Mariona izan da bozkatuena.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako 3.500 haurrek baino gehiagok parte hartu dute To.pic Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroaren etorkizuneko maskotaren aukeraketan. Azkenean, guztien artean Azkoitiko Xabier Munibe ikastetxeko Urtzi Odriozolaren ideia izan da irabazle. Txotxongiloen Nazioarteko Egunean aditzera eman zuten irabazlearen izena.

Tolosako TEEn webgunean ia hiru astez bozketa egin ondoren, Gipuzkoako 3.516 ikasleek epaia eman dute eta, botoen %64 alde izanik, Urtzi Odriozolaren proposamena da, ikasleen ustez, To.pic-en maskota izango den marioneta nolakoa izan behar lukeen ondoren islatzen duena. Beraz, Urtzi Odriozolak eta bere 5.Ako gelakideek To.pic-erako egun bateko txangoa irabazi dute, gaua barne. Txango horretan txotxongiloen

antzezlan bat ikusteko aukera izango dute, txotxongiloak egiteko tailerra egingo dute eta museoan barrena bisita gidatua izango dute.

Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa eraikitze-fasean dago orain, eta atek udazkenean irekiko dituela aurreikusten da. Hortaz, irabazleek hilabete batzuk itxaron behar izango dituzte me-rezitako saria jaso ahal izateko.

Hiru mototsetako Mariona

Idea irabazleak «marioneta estilatu bat agertzen digu, marroi koloreko ilea modu berezian bilduta; izan ere, bi mototsen ordez, hiru izango ditu. Bota marroiek eta marra gorridun jertseak eta galtzek osatzen dute To.pic-en maskota berriaren fisionomia berezia.

Marionari behin betiko forma eman behar izango dioten diseinatzaileentzako inspirazio-iturri izango den proposamen irabazlearen aukeraketa joan den abenduan hasi zen. Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroak LHko bigarren eta hirugarren ziklotako haurrei To.pic-en maskotaren sorreran parte hartzeko proposamena egin zien orduan. Zentroa inauguratu aurretik ikas-



Mariona maskota berriak hiru motots izango ditu bi beharrean. HITZA

leek etorkizuneko Txotxongiloen Nazioarteko Zentroaren garapenean parte hartzea zen ideia. «Emaizak ikusita, 500 proposamen baino gehiago jaso baitira, erabat bete genituen helburuak».

Behin betiko forma udazkenetik aurrera

Hortik abiatuta, komunikazio grafikoko profesionalak osatutako epaimahaia bost proposamen

hautatu zituen, eta Gipuzkoa oso 3.500 ikasle horien artean gurek duen alde bozkatzeko aukera izan dute Tolosako Ekinbide Etxearen webgunearen bidez.

Orain, hemendik aurrera lana diseinatzaileena izango da. Izan ere, Urtzi Odriozolaren ideian inspiratuta, haiek arduratuko dira udazkenetik aurrera, To.pic-en irudi izango denari behin betiko forma ematez.

Langostino motor kultur elkartearekin, igandean Nafarroara

Ibarra » Izena lehen bailehen ematea eskatu dute antolatzaileek; edozein motor izango da aproposa bidaia egiteko.

ERREDAKZIOA

Langostino moto kultur elkarteak datorren igandean urteko bigarren moto-bira egingo du. Bertan parte hartzeko izena email bidez (langostinomotofesta@gmail.com) edota telefonoz (630 78 42 13, 670 41 79 15 edo 636 40 31 70) ahalik eta azkarren ematea eskatu dute, zenbat izango diren jakiteko. Horren arabera hamaiketako prestatu dute, 6 euroan.


Beti bezala, Ibarra San Bartolome plazatik abiatuko dira, 09:30ean aterata. Hau da egingo duten ibilbidea: Ibaratik Tolosara eta Nafarroara doan bide zaharretik Lekunberri aldera joko dute. Gero, Irurtzundik Urrietzola aldera hartuko dute errepidea.

Motorzaleak behin Errotzera iritsita, berriz Irurtzunera joan eta

Ibarra aldera joango dira, joaneko egindako bide beretik, hain zuzen ere. 13:30a inguruan Ibarra iritsiko direla kalkulatu dute antolatzaileek.

Zalantzak argitzeko, deitu

Birara joateko ez da moto berezirik behar, alegia, edozein motorraren joan eta egin daitekeela irteera. Irteerarekin lotutako edozein zalantza izanez gero, aurretik emandako telefono zenbakietara deituta argituko dituzte.



Ibilaldiez gain jolasak ere antolatzen dituzte. I. ASTIBIA



10 urte eta gero ere 'Ttotto' gogoan

ZIZURKIL » Herenegun, Jose Luis Geresta Ttotton heriotzaren 10. urtereneko omenaldi-ekintza egin zuten haren omeneko orogarriaren aurrean. Hori gogoratzeko «jende ugari» bildu zen Zizurkil Goiko «Ttottonen txokoan». Txalaparta, haren ilobek kantatutako bertsoak eta dantza izan ziren ekitaldian. Bazkari batekin amaitu zuten guztia. HITZA

REBEKA CALVO

Jorge Oteiza artistaren unibertsoa inoiz baino gertuago sumatu daiteke Tolosan. Zaila da oriotarraren pentsakera eta lana deszifratzea, baina Udalarren eta Altuzako (Nafarroa) Jorge Oteiza Fundazioa Museoren laguntzarekin Euskal Herriko idazle eta eskultore ezagunaren lana ulertzeko gakoak gertuago daude orain.

Oteiza Tolosan izenpean ekitaldi ugari antolatu dituzte hilabete honetan zehar; mahai-inguruak, hilaren 29a bitarte Aranburu Jauregian ikusi daitekeen *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketa, ikusentzunezkoak... Ostirlean, gainera, Iskandar Rementeriarren *Oteiza eta Alhondiga kulturgunea* dokumentala eskainiko dute Leidoraretoan (19:30ean eta doan) eta larunbatean, Triangulon, herriko Gko Galleryak antolatuta apirilaren 11ra arte ikusi ahal izango den *performance* egingo dute. Hainbat euskal artista gaztek Oteizaren Trianguloko lana mihi modura erabiliko dute eta egunean zehar artistaren bizitzan eta lanean oinarritutako lanak burutuko dituzte plazan, pixkanaka Oteizaren eskultura lan berriekin estali eta guztiz eraldatuz. Maisuari omenaldia eskaintzeaz gain, *Street Art* delakoa (kalean egiten den artea) aldarrikatu eta ezagutarazi nahi dute.

Tolosako ondarea

Oteiza eta Tolosaren arteko harremana, hala ere, ez da hilabete bakar batekoa, urteak dira, 15 zehazki, bere bi lan herriko kaleetan daudela, bere matematika eta hutsaren inguruko teoriak lau haizetara zabalduz. Trianguloko *Ataats* eta Olarraingo *Pare Mugikorra* dira bi lan horiek. Izan ere, artistak Euskal Herriko herri askotan utzi zuen bere ondarea.

Tolosak 1994. urtean jaso zituen Oteizaren lanak. Triangulon kokatutako *Ataats* izan zen lehena eta nola ez, artistak hutsaren teoriarekin zuen loturaren isla ere bada. Ate kontzeptuaren eta hutsaren arteko lotura da *Ataats*, hau da, Oteizak hutsa eskultura-gai bezala erabiltzeko teoriaren adierazlea. Izan ere, oriotarrak ukitu, pisatu, moldatu edota neurtu daitekeen materia kendu nahi zuen, ezabatuz, baina eskultura edo lanetan materia hauen presentzia suntsitu gabe.

Artistaren lana eta pentsakera gogoratzeko unea da. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte horretarako Tolosan, baina herriaren eta eskultorearen harremana aurregotik dator '*Ataats*' eta '*Pare Mugikorra*' lanei esker.

Oteiza unibertsoari so



Ataats eskultura; Triangulo Plaza eta Gaztelako Atearen arteko loturaren isla. R. CALVO

Eskulturak hustu egiten zituen, eskultorearen zati materiala kentzetik sortutako hutsuneari bizia eta presentzia emanaz. Jaioterriko hondartzan topatu zuen Oteizak hutsunearen handitasuna. *Ataats* eskultura ere horren adierazle da eta Triangulo Plazaren eta Gaztelako Atearen arteko lotura ez fiska egiten du.

Ataats Tolosako Udalak arte-garaikidea kaleetara zabaltzeko egindako apustuaren lehen urratsa izan zen, gainera. Hasieran ez zuen harrera berorik izan; tolosarrak ez zuten begi onez hartu eskultura handi hura Triangulo erdian jartzea, baina pixkanaka herriko erdigunearekin egin du bat. Bidea ireki zuen gainera; Ugarteren *Oroimenaren Gazteluari*, Eduardo Chillidak Lizardi omentzeko eginikoari, Basterretxearen lanari...

Baina Oteizak bestelako ekarpenik ere egin zuen Tolosan, izan ere, *Pare Mugikorra* izeneko lana ere ikusi daiteke Olarrainen, hain zuzen 1968. urtean Guardia Zibila bertan hildako Txabi Etxebarrietaren omenez jarritakoa. 1956. eta 1957. urteen artean egin zuen burdinezko lanaren handipena da, itxura geometrikoko eskultura abstraktuak egiten hasi zenekoa, hain justu.

Garai honetan hasi zen baita aipatutako lanak hustutzeko teoriak, matematikekin estuki lotutakoak. Olarraingo eskultura erdigunean lotuta eta perpendikularki dauden bi zirkuluerdik osatzen dute, itxura geometrikoa hartuz.

Eskultorea baino gehiago

Oteizak utzitako ondarea ezin zenbatu daiteke; eskultura, make-ta, zirriborro eta antzekoek gain, bere pentsakera konplexuaren adierazle den hainbat idatzi utzi zituen, aipagarriena, agian, 1963. urtean argitaratutako *Quousque Tandem...!*, *euskal arimaren interpretazio estetiko* saiakera liburua delarik.

Herri desberdinetan topatu daitezkeen lanen artean Arantzazuko santutegiko fatxada nagusiako hamalau Apostoluak dira ezagunenak, behar bada, baina Aita Donostiari Aginako harrespilen ondoan (Lesaka, Nafarroa) eskainitako oroitarria edota Donostiako *Eraikuntza hutsa* edota San Bizente elizaren ondoko *Pietate* eskulturak ere oso ezagunak dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Olarrainen artistaren *Pare Mugikorra* lana ikusi daiteke Txabi Etxebarrietaren omenez. A. IMAZ

BertsolarHITZA: Alegia Vs. Altzo

Bertsolaritza » Helduen bertso eskolen arteko txapelketaren hirugarren jardunaldia ostiralean jokatuko dute Alegiako Gaztetxean 21:00etan.

ASIER IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko BertsolarHITZA Desafioaren finala hilaren 27an, ostiralean, Alegian erabakita geldituko da.

Eskualdeko helduen bertso eskolen arteko txapelketaren ligaxka martxoaren 6an jarri zuten martxan Ibarrao Gaztetxean. Altxon bigarren saioa burutu ostean, ostiral honetan ligaxkako azken lehia jokatuko dute Alegian; etxeko taldeak eta Altzok.

Finala apirilaren 4an ospatuko

da Tolosako Oargi elkartearen. Orain arteko saioak bertso afari moduan egin baldin badira ere, azken lehia bertso bazkaria izango da.

Ostiralerako sarreak salgai

Ligaxkako hirugarren saioa Alegiako Gaztetxean jokatuko dute hilaren 27an. Bertso afaria 21:00etan hasiko da eta sarreak Alegiako Ixkiña eta Etxeberrianean aurkitzen dira salgai 15 eurotan. Afariaren ostean, 8 bertsolari jarri-

ko dira mikrofonoaren aurrean: Iriarte, Felix, Beñat eta Zaztarre etxekoan aldetik eta Altzoko taldearen izenean Iker Laso, Iñaki Olano, Adur Gorostidi eta Iñigo Gorostartzu.

Ohi bezala epaimahai lanetan bost lagun ariko dira, saioaren aurretik aukeratuak izango diren bost afaldar. Bertsolariak lanean entzun ostean, epaile bakoitzak talde baten izena idatziz beharko du orri batean, garaile nor den jakiteko.

Finala erabaki gabe

BertsolarHITZA Desafioaren finalean bi talde egongo dira. Hauek zeintzuk izango diren ordea ostiralean erabakiko da. Alegiak eta

Ibarra puntu bana dute, saio bana irabazi baitute.

Altzok finalerako sailkatu nahi baldin badu, ostiraleko saioa irabazi beharko du. Kasu honetan zuzenean finalean egongo litzateke.

Ibartarrak berriz adi-adi egongo

Finala apirilaren 4an, larunbatean, jokatuko da bertso bazkari modura Tolosako Oargi elkartearen

dira; Oargin abestu nahi baldin badute alegiarren garaipena behar dutelako.

Azken hauek jadanik hanka bat eta erdi finalean dute. Puntu bakarra izan arren Ibarrao saioan lau

bozka lortu zituzten eta ostiralean 5-0 galdu arren ibartarren bozka kopuru bera izango lukete. Kasu hau gertatuko balitz hiru talderen artean erabaki beharko litzateke finalera begira zer egin.

Zenbakiak eta izenak alde batera utzita, Tolosaldeko eta Leitzaldeko BertsolarHITZA Desafioak gauza bat argi utzi du: bertso on eta txarren arteko mugak saioetako giroan ez duela eraginik.

» SAILKAPENA

BertsolarHITZA Desafioa

	Saioak	Puntuak (bozka)
1. Alegia	1	1 (4 aldeko)
2. Ibarra	2	1 (4 aldeko)
3. Altzo	1	0 (2aldeko)



Alegiako taldean Iriarte, Beñat, Felix eta 'Zaztarre' ariko dira; Altzokoan berriz Olano, Adur, 'Etxorde' eta 'Akazi'. Alegiako Gaztetxean egingo dute bertso-afaria 21:00etan ostiralean. HITZA

Ez pentsatu geroan, aiaturko da



» Herrira begira

Aimar Sagastibelza
Futbol jokalaria

Mantxo mantxo denboraldie aurreant die ta urte guziko gisen goaz, klasifikazioko erdialden. Gure plantilla ikusita urte oso kaxkarra iten ai ga, ezin ukatu. Izenez bigarren maillako 3-4 talde onenetakoa dauke dudik gabe, beño futbolen jokalaria bikañek eu-

kitzek eztizo deusen garantik ematten gaur eun. Ikeragarritzko jokalarik dauzkeu, bai, beño talde bezela eztu funtzionatzen, eztao besteik.

Halare, egoista izanda, ligako azken partiduta oaingo martxan aiatzea nahi nuke, jokoan deus euki gabe. Zeatik? Ba modu honetan seurona partidun bat o beste gehio jokatuکو nittuzkelako.

Beño beno, hortako oaingo nere egoera hobetu beharkot; izane oain dela 3 aste entrenamentu baten taldekidete batekin sekuleko txokea izandu nun eta iztarren haustura batekin nau. Zorionez ezta lesio gorra eta ia errekuperatuxtea nau.

Hontaz aparte, futbolan pano-

rama beltza aittatu gabe ezin utzi. Egoera kritikoa da. «txolloa» bukatzen ai da. Oain dela gutxi arte klubek indako gehiegikeri neurri-gabek bere fakture pasatzen ai die. Profesionetan arazo ekonomiko larririk daude eta grabea da, beño malla bajugoaan oaindik okerragoa da. Hirugarren edo 2. B mailan dauden ekipoen %70 ekonomikoki arazo latzak daude, eta noski, ezin dittue jokalarin soldat-patu.

Soluzioik gabeko problema dela iruitzen tzaiz, eta hau gutxi balitz, futbol mundun sartuta dauden hainbat impresentable interesatuk ezteue paretik alde itten!

Bestalde, kuadrilleko laun miñe doten Mikel Nieve txirindulari

bikañek profesioaletako pausoa eman berri do, beño ematten ai den malle goi maillakoa da. Leitze, eliteko kirolarin jaioterrie izandu da historikoki eta kontaeziñek die hainbat kirolatan indako lorpen-latzak. Ba Mikel, Leitzek emandako eliteko kirolari onenan arten dau. Ongi ezautzettot oain daon lekure aiatzeko in behar izandutdon sarkrifizio eta lan gorrak. Ongi mezie do. Ea suerrea dauken txirindularin mundu ikusgarri bezain «zikin» hortan.

Beno, datorren asten kirolari haundie den nere beste laun miñ bat zuzenen ikusteko aukera izanen dot. Izane, Asier Arzallus sas-kibaloiko jokalarie Tarragonara heldu da bere ligako partidue jokatzea. Eta noski, aukera aprobetxatukot berekin eon eta bere eskumuturre beti bezin zehatza daon konprobatzeko, jeje.

Jaunarenak eta Zabaletak Lezamako Txapelketa irabazi dute

A. IMAZ

Asteburuan partida garrantzitsuak jokatu zituzten Aurrerako pilotariek. Hauen artean Jaunarena eta Zabaleta azpimarratu behar dira, Lezamako Txapelketaren finalean 22-14 irabazi baitzuten, jubeniletan.

Emakumea Pilotari Txapelketan 3. eta 4. postua erabaki zuen partida jokatu zuten leitzarrek. Iera Agirre eta Saioa Aristorena laugarren gelditu ziren, 18-30 galdu ostean.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldia

■ **Anoeta.** Kutxaren Nazaret Zentroak antolatuta, Alkartasuna Biltokian 18:30ean Nagore Vazquezek hitzaldia emango du bakardadeari buruz, 'Bakardadeari aurre egiteko alternatibak: animaliak, ikas- le gazteak eta lagunak egitea' izenburupean.

Deialdiak

- **Anoeta.** Ekainaren 11n izango da aurten Korputz Eguna eta herriko festak prestatzen hasteko bilera batera dei egiten zaie herriko kultur elkarte eta herritar orori. Bileraren martxoaren 24an izango da, astearte, 18:30ean udaletxean.
- **Irura.** Pilotalekuaren inaugurazioa ostiralean Titin III.a-Laskurain eta Gonzalez-Barriola bikoteen arteko partidarekin. Sarrerak salgai 20 eurotan herriko tabernetan. 55ko kintoen festa apirilaren 4ean
- **Leaburu.** Leaburun meza eta bazkaria bertako Ostatuan eginez. Izen-ematea, 943 671548 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Apirilaren 2an pasako da Korrika 16 Tolosaldean. Ekitaldien aurkezpen irekia Lizardi elkartearen 17:30ean.
- **Tolosa.** Bigarren Hezkuntzako graduatu titulora lortzeko proba libreak aurki izango dira Tolosan. Izen-ematea Tolosako HHIn eman beharko da izena, eta azterketak maiatzaren 20an izango dira, EPAn bertan.
- **Tolosa.** La Serena bailaran jaiotakoek eta bere ondorengoez festa eta bazkaria izango dute igandean La Jara Extremadurako Etxean. Izen-ematea, 943 675419 edp 675 707619 telefonoetan (20 euro).

Irteerak

- **Ibarra.** Nafarroako Iñurieta partegira joateko irteera hilaren 28rako. 15 eurotan. Izen-ematea Azoka dendan.
- **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek antolatutako irteera hauetarako lekuak gelditzen dira: Asturias (hilaren 23), Galiza (maiatza) eta Platja de Aro (ekaina). Izen-ematea, elkartearen.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Behe Bidasoako e-gunkaria

Hedabideak » Atzo ekin zion biderei Behe Bidasoako HITZAK, e-gunkariarekin; ostiralean helduko da papereko edizioa.

ERREDAKZIOA

Zortzigarren *Hitza* abian da dagoeneko. Atzokekin zioten lanari *Behe Bidasoako Hitzak* Irunen eta Hendaian dituen erredakzioetan, eta edizio jarraitua eta e-gunkaria irakurtzeko moduan dira jadanik. Izan ere, horiek izango dira komunikazio proiektu berriaren euskarri garrantzitsuenetakoak, ostiralean argitaratuko den papereko edizioarekin batera.

Irun, Hondarribia, Hendaia, Pausu eta Biriaturko berri emango du *Behe Bidasoako Hitzak*, 90.000 biztanletik gora dituen eskualdean euskararen normalizazioan eragiteko helburuarekin. Hori lortzeko, kalitateko egunkari plurala, independentea eta parte-hartzailea argitaratzea izango da lan-taldearen eguneroko lana. Behe Bidasoako herri informazioa lantzen eskarmentu handia duen Koldo Nausia (Hondarribia, 1982) izango da zuzendaria.

Azken urteotan, zehazki, Antxeta Irratian goizean goizeko albisteak prestatzeaz eta aurkezteaz arduratu da Koldo Nausia, Behe Bidasoako herri informazioa lantzen duen *bidasoamedia.info* webgunea elikatzeaz gain.

Hiru hedabide izango dituen komunikazio proiektua

Orain, webgune hori bera komunikazio proiektu berriaren arabera antolatzea, eta edizio jarraitua, e-gunkaria eta HITZAREN papereko



Behe-Bidasoako HITZAREN aldeko kanpaina aurkeztu ze pasa den azaroan. HITZA

edizioa elkar-eragileak bilakatzea izango da zuzendariaren zein kazetariaren helburua.

Azken batean, hiru euskarri eta hedabide izango baititu HITZA berriak: edizio jarraitua *bidasoamedia.info* webgunean, e-gunkaria flash eta PDF euskarrietan *behebidasoakohitza.info* webgunean, eta hasiera batean 16 orrialdekoa izango den ostiralderoko papereko edizioa.

Eskatutako diru laguntza jasoz gero, berri, papereko edizioak aurrera begira 32 orrialde izango dituzte. Papereko edizio hori izango da, zehazki, ostiraldero harpidedunen postontzietara iritsiko dena, astean zehar eskualdean gertatu dena bilduz eta eguneroko kontuak eduki gehiagoarekin osatuz.

Elkarlanean sortutako proiektua

Euskal Herriko gainerako zazpi Hitzak bezala, elkarlanean mamitu den proiektua da egunkari berria. *Behe Bidasoako Hitzak* ere eskualdeko euskalgintzaren eta gizarte eragileen eta Euskarazko Komunikazio Taldeko Bertako Hedabideen artean sortu da.

Kasu honetan, zehazki, Pausu Media Elkartearen, Irun Iruten euskara elkartearen, Hondarribiko Bagartian euskara elkartearen, Hendaiaiko euskalgintzaren, Bertako Hedabideen eta eskualdeko gizarte eragileen ordezkaritzak osatuko dute enpresa argitaratzailearen administrazio kontseilua, beti ere «eskualdean euskarazko hedabideek informazioaren erre-

ferentzialtasuna lortzeko» helburuarekin.

Euskarazko tokiko prentsaren beharri erantzunez

Azken urteotan Behe Bidasoan batetik bat Antxeta Irratia eta *bidasoamedia.info* aritu dira herri informazioa euskaraz jorratuz. Eskualdeko gizarte eragile eta norbanako talde batek, ordea, euskarazko tokiko prentsaren beharra aldarririkatu zuten, ikaztekin.

Aldarririkapen hura kontuan hartuta, eskualdean euskarazko komunikabideen eremuan lanean dabiltzan eragileek eta eskualdeko euskalgintzak konpromisoa gautatzea erabaki zuten azaroan, eta *Behe Bidasoako Hitzak* sortzeko laguntza kanpaina aurkeztu zuten.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAREN egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAREN egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak